



BARREN
TOKIKOM



Surfa pasio

Nora Pedrosa

Eibarko La Salle Azitain

**Artezko
Batxilergoa**

**Giza eta Gizarte
Zientzietako
Batxilergoa**



**Zientzietako
Batxilergoa**



**ZATÓZ
GUREKIN**

Aurrematrikula zabalik maiatzaren 2tik 12ra


Euskadi



IT-ti teknologia-erako
APROXIMATU **akreditatua**
Centro acreditado en el nivel
AWAKING de maduro TIC

www.lasalleeibar.com
emaila: azitain@lasalle.es
Tel: 943121698



NEREA GURRUTXAGA



“Horregatik aipatzen ditut gaur amamak, eman diguten jakinduria eta maitasuna eskertzeko”

Kaixo, Nora! Zer moduz Aste Santuan? Grezian egon omen zara; a zer zortea zurea! Niri herrian gelditzea tokatu zait, herria zaintzen! Eta zaintzaren inguruan hitz egin ez hasi nahi dut gaur, Nora, izan ere, batez ere emakumeoi loturiko jarduera izan da beti zaintza. Inguruko arduraren ikasi dugu, eta horren eredu izan dira guretzat, eza gutzeko zortea izan dugunontzat behintzat, gure amamak. Zenbat jakinduria transmititu duten, belaunaldiz belaunaldi, eta zer gutxi aitortzen eta eskertzen zaien lan hori! Askotan adinekoak umeak balira bezala tratatzen ditugu, goi-mailako ikasketak ez edukitzeagatik gutxietsi, eta oso jarrera pobrea iruditzen zait, jakinduria handia transmititzen diguten pertsonari buruz ari garelako. Miren Amurizak idatzi zuen behin gai honen inguruan, eta askotan pertsona nagusiak kolektibo “dependiente eta inutit” gisa tratatzen direla aipatu zuen, ez zaiela iritzia eskatzen, eta iraganari buruz galdetzeko bakarrik jotzen dela euren gaitasuna. Izan ere, gizarte “helduzentrista” batean bizi garenez, helduen iritzia da kontuan har-

tzen dena, adinekoen eta umeen iritzia gainera. Amamei, generoaren karga gaineratzen zaie, emakume izaterakoan beti bigarren planoan egon direlako, zaintzaren arduraren guztia bereganatuz, kexatzeko ere denborarik eta eskubiderik ez balute bezala. Horregatik aipatzen ditut gaur, horietako bakoitzak eman digun jakinduria eta maitasuna eskertzeko. Gogoan ditut amaren kontakizunak, txisteak, anekdotak, kantak, ipuinak, gomen-dioak, irakaspenak... Gustuko dut egunkaria goitik behera irakurtzen duen bitartean parean aldizkari batekin eseritzea, biak irakurtzen, isilik, baina elkarri konpainia eginez. Heldu zaio hainbeste urte lanean eman ondoren lasai bizitzeko ordua, eta teknologiaz eta presaz beteriko mundu honetatik ihes egiteko oasi bat iruditzen zait momentu hori niri. Noizbehinka egunkari zatiak gordetzen dizkigu: “Hau Nereak irakur dezala! Interesatuko zaio eta!” Ez dakit zure esperientzia nolakoa den, Nora, baina seguru nago baduzula zer esana gai honen inguruan, izan ere, ba al dago mundu honetan amaren magala baino leku hobea?



NORA KORTABERRIA



“Beraz, zergatik ez diegu etorkizuneko erabakietan ere parte hartzeko aukera ematen?”

Kaixo, Nerea! Aste Santuan Mediterraneoan olatu ar- tean ibili naiz bai, alde batetik bestera leku berriak bisitatzen oporretako egun bakoitza aprobetxatu nahian. Bueltan etorri eta lehenengo besarkadak aitaitxa eta amamei eman dizkiet gainera. Historial handia duten pertsonak dira, eta etxeko gazteenok ikustean beti irribarre alai eta begirada magiko bat pizten zaie.

Burura etorri zait behin baino gehiagotan egin didaten galdera: Zer aukeratuko zenuke irla bakarti batera gauza bakarra eraman ahalko bazenu? Orain arte objekturen bat aukeratu izan dut, baina pentsatzen hasita, imajinatu aitaitxa eta amama eraman ahalko bagenitu. Horiek bai izango zirela laban *multiuso*-ak baino hobek! Irla bakartiari bizitasuna emango liokete, beraien magalean pasatzen dugun denbora, eguneroko presaz beteriko mundu honetatik ihes egiteko bidea bihurtzen duten bezala.

Zuk esan duzun bezala, euren gaitasuna iraganari buruz gal-

detzeko bakarrik jotzen dugula dirudi, bizitzak erakutsi dien guztiarekin denontzako aholkuak dituztelako. Baina kontuan hartu behar dugu gizarte honen etorkizuna gu izan arren, berriak direla kopuruz nagusi. Gainera, duten historialak erabaki zentzuzkoenak hartzerantz eramaten dituzte. Orain arte iritzia emateko aukera gutxi izan dute, amamek batez ere, aipatutako zaintzako bigarren plano horretan egon direlako. Beraz, zergatik ez diegu etorkizuneko erabakietan ere parte hartzeko aukera ematen?

Adibidez, jakingo duzun bezala, Nerea, elgoibartarrok maiatzaren 7an erabaki garrantzitsu bat hartzeko aukera dugu Araba, Bizkai eta Gipuzkoako beste 50 herritan bezala. Gure Esku Dagok galdeketa egingo du herritarrok eskualde estatu independentea nahi dugun bai edo ez esan dezagun. Hortaz, aprobetxatu ditugun horrelako aukerak gazte, heldu edo adinekoen indarraren balioaz ohartzeko. Guztiok batera bide berriak zabaltzea lortuko dugu eta!

ENETZ EZENARRO

Matematika irakaslea EHU



Askotxo aukeran

baitzian asmatzaileari. Gure gizonak, oso jakintsua baitzen, zera eskatu zion: xake taulako lehen laukiagatik gari ale bat, bigarren laukiagatik bi gari ale, hirugarrenagatik lau, laugarrenagatik zortzi eta horrela lauki bakoitzagatik aurreko gari ale kantitatearen bikoitza. Erregeak, ez baitzekien aritmetika askorik, barrezka, handikeriaz hartu zuen erantzun xelebrea, eta agindu zion bere altxorzainari kalkuluak egin eta eskatutakoa lehenbailehen emateko gizon hari: hain asmakizun bikaina, halako huskeriaren truke eskaintzen zion dohakabe hari.

Erregearen harridurarako astebete luzea behar izan zuen altxorzainak

gizon hari zor zitzaion gari ale kantitatea kalkulatzeko, xake taulak ez baititu alferrik 64 lauki. Erregeak itxaronaldiaren luzearen arrazoigatik galdetuta, altxorzainak kalkulatuak kantitatea eman zion: 18.446.744.073.709.551.615 (18 triloio t'erd) gari ale, zehazki. Bertsio batzuen arabera, erregeak, zorra ordaindu ezinda, erregetza eman zion asmatzaileari. Bada zigortu egin zutela dioen bertsio errealistagorik, dena den. Gaur egungo munduko gari ekoizpena oinarri hartuta 20.000 urtetik gora behar harko lirateke gari ale kantitate horretara iristeko.

Kontuz, bada, hazkunde esponentziala deitzen duten horrek: inoiz ez da ematen duena.

Kontatzen denez (bertsio diferentek badiren arren) aintzinako Indiako matematikari batek asmatu ei zuen xake jokoa, ajedreza. Behin bere asmakizuna Ekialde Urruneko herrialde bateko errege bati erakutsi zion. Hainbeste gustatu zitzaion joko berria erregeari eze, eskatutako saria emango ziola agindu

“Kontuz, bada, hazkunde esponentziala deitzen duten horrek: inoiz ez da ematen duena”



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euzkoalduko Lehenengo Argitaletxea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskuittzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalaa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansoa, Eduarne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Eneitz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Soraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegui, Maddi Mendibil, Haizea Beristain **INPRIMATEGIA** Geru Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

▶ BATZUK BAINO GEHIAGO

20. Korrika bukatu zenetik egunak pasatu badira ere, oraindik ez zaizkigu ahaztu apirilaren 5ean, astegun buruzurrian, goizeko 6:30ean bizi izan genituen emozioak, euria izan arren, hura giroa Txarriduna aurrean, Mauxitxa txarangak lagunduta! Ordurako beste asko Azkarate gainean ziren, azkoitiarrek zekarten leku koaren zain, logurerik gabe, Sarrionaindiak idatzitako mezuan zioen bezala, *ezti tanta ezpainetan zutela*. Herriari buelta eman eta mendarorarrak zain ziren lekuraino eraman zuten lekukoa hainbat erakunde, lantegi, eskola... ren ordezkariak BATZUK euren eginda. Mendarokoek ere beste horrenbeste egin zuten, Sasiolan Debakoei lekukoa eman arte, eurak ere BATZUK direla ederki asko adierazita.

Hau guztia "karrerari" berari dagokionez, baina ezin dugu ahaztu, honek guztiak aurretiko isileko lan eta parte hartze handia duela. Hori dela-eta, era batean edo bestean, lagun izan zaituztegun denoi eskerrak eman nahi dizkizuegu: AEK euskaltegiko ikasleei; Udal Euskara sailari; diru ekarpena egin duzuen guztioi; Elgoibarko Izarrari; Mauxitxa txarangari;

Azkue argazki dendari;... eta, bereziki, Mendaroko Irene, Lurdes eta Borja laguneri, euren gain hartzeagatik Mendaroko antolaketa.

Aurtengo edizioan, baina, bi hutsune nabaritu genituen, batetik Jose Gurrutxagarena, eta bestetik Hasier Etxeberriarena, jakin badakigulako, bi izan arren, BATZUK zirela.

20. Korrikak bereak eman baditu ere, BATZUK izatea eguneroko kontua da, eta Sarrik mezuan zioen bezala, *erabiliz gero ez da agortzen eta dohainik erabil dezakegu*. AEK euskaltegikook gure lana egin jarraituko dugu herritarrei erabiltzeko tresnak ematen, behar guztietarako eskolak ematen ditugu-eta.

Elgoibarko AEK euskaltegia

▶ PRESO GAIXOAK

Frantziako epaitegiak onartu eta publiko egin du Oier Gomez preso gaixoraren zigorraren etetea, egun duen osasun egoera larria dela-eta. Horrez gain, Oierrek bere gain zituen hiru euroagindu ere eten ditu. Ewin sarkoma du Oierrek, buruan eta pelbisean metastasiarekin.

Azken hilabete eta asteotan larri gai-

xorik dauden preso en egoerak nabarmen egin du okerrera; izan ere, ospitaleratze eta eraso berriak egon dira... eta zerrenda hori handituz doa: 10 preso gaixo egotetik 13 egotera pasatu gara, eta horiei publikoki agertu nahi ez duten beste 9 presoren kasuak gehitu behar zaizkie.

Apirilaren 8an, Baionan, ETAREN desarmea gauzatu zen, bakegileen ezinbesteko laguntzarekin. Euskal gizarte ia osoak begi onez jaso zuen albistea. Baina sentimendu bat orokortu zen: lortu dugu galtzaille eta irabazlerik gabeko desarmea bat; jo dezagun aurrera herri honek dituen arazoei irtenbidea ematen. Presoen egoera, eta preso gaixoena kasu honetan, urgteenatarikoa da. Edo laster aska ditzaten lortzen dugu edo espetxetik ia zertraldio irteten ikusiko ditugu. Maiatzaren 6an, Gasteizen, herriaren borondatea adierazteko aukera izango dugu. Baionako izpiritua hedatzen jarraitu behar dugu. Animatu eta parte hartu! Elgoibartik autobusa irtengo da 16:00etan, Txankuako autobus geltokitik. Izena emateko lekuak: Jai Alai eta Iturri tabernak.

Elgoibarko Sare



I. URTEURRENA

Manuel Rey Quiroga

2016ko apirilaren 27an hil zen, 78 urte zituela

**Urte bat hegan pasatzen da,
baina zu gabe, luze egiten da.**

Maite zaitugu.

Zure familia osoak



Maiatzaren 7an botoa ematera joan ezin dutenei boto aurreratua emateko aukera eskaintzen die Elgoibarko Gure Esku Dagok

Maiatzaren 7an botoa ematera deitu du Gure Esku Dago erabakitzeke eskubi-dearen aldeko mugimenduak Elgoibarren ere. Erroldatuta dauden 16 urtez gorako guztiak deitu dituzte botoa ematera. Maiatzaren 7an, 9:00etatik 20:00etara egongo dira hauteslekuak zabalik, Kalegoen plazan, Maalan eta Gure Esku Dagoren lokalean, San Frantzisko kaleko 11. zenbakian. Botoa emateko agiri hauekoren bat aurkeztu beharko da: NAN Nortasun Agiri Nazionala, pasaporte, gidabaimena, EHNA Euskal Herriko Nortasun Agiria eta bizileku txartela (agiriak iraungita izanez gero, edo helbiderik ez badakarte, errolda agiria erakutsi beharko da).

Maiatzaren 7an botoa eman ezin dutenenentzat, baina, boto aurreratua emateko aukera ere ari da eskaintzen Gure Esku Dago. Apirilaren 23an hasi ziren, Aiastian, eta aste honetan ere izango da botoa ema-



teko aukera, ondorengo leku eta orduetan. Maiatzaren 1ean, Idorbe auzoko plazan, 11:00etatik 13:00etara, eta Altzolako lokalean, 18:30etik eta 20:30era. Maiatzaren 2an, Gure Esku Dagoren lokalean, 11:30etik 13:30era eta 18:30etik 20:30era. Maiatzaren 3an, San Roke kalean, Meka parean, 11:00etatik 13:00etara, eta maiatzaren 4an, Gure Esku Dagoren lokalean 11:30etik 13:30era eta 18:30etik 20:30era, eta gaur zortzi, maiatzaren 5ean, Gure Esku Dagoren lokalean, 18:30etik 20:30era.

Kartelak, leihoetan

Gure Esku Dago kartelak atera ditu maiatzaren 7ko herri galdeketa harira eta herritarrei eskatu die etxeko leiho eta balkoietan esegitzeke. Ahalik eta jende gehienak botoa ematea nahi dute, eta giroa berotu nahi dute horretarako. Era berean, egunean bertan ere festa izango dela aurreratu dute, nahiz oraindik ez duten egitaraua jakinarazi.



'Baserrri ibiltaria' egingo dute bihar hileko azken zapatuko ferian

Hileko azken zapatuko feria egingo da bihar Elgoibarren. Ohiko legez, 8:00etan zabalduko dute azoka eta Elgoibarko baserrietan ekoiztutako produktuak erosteko aukera izango da Kalebarren plazan. Eguerditik aurrera, berriz, gure baserrietako animaliekin gozatzeko aukera izango dute neska-mutilek baserrri ibiltarian. Ardiak, ahuntzak, untziak, oiloak, txerriak, ahateak, antzarak... ekarriko dituzte kalera baserritarrek. Era berean, eguerditik aurrera kale kantariak ere irtengo dira, kaleak girotzera, eta Aita Agirre plazan ohiko ganadu feria eta tresneria postuak jarriko dituzte. Elgoibarko Udalak jakinarazi du biharko ferian ez dela txosnarik egongo.

Mendaroko udaleku irekietarako izena emateko epea, zabalik

Udaleku irekietarako izena emateko epea zabaldu du Mendaroko Udalak. Uztailaren 3tik 21era egingo dira, 9:30etik 13:00etara, eta bi taldetan banatuko dituzte haurrak: HH4-LH1 eta LH2-LH6. Maiatzaren 5a arteko epea dago izena emateko. Horretarako fitxa bat bete beharko da eta dagokion diru zenbatekoa sartu ondorengo kontu korrante honetan, kontzeptuan izen-abizenak zehaztuta: 2095 5054 011061225891. Haur bakoitzeko 80 euro ordaindu behar dira (familia ugariei %25eko deskontua egingo zaie hirugarren umeagatik). Mendarokoak ez diren umeak 110 euro ordaindu beharko dituzte.

Udalak 38.000 euro baino gehiagoko laguntza emango die aurten ikastetxeei



Elgoibarko Udalak 38.237,99 euroko diru-laguntza emango die ikastetxeei 2016-2017 ikasturtean hainbat proiektu eta egitasmo finantzatzeko. Asteartean sinatu zuten hitzarmena ikastetxeetako ordezkariak eta Ane Beitia alkateak. Diru-laguntza hori Udaleko Gizarte Ongizate, Euskara, Haur, Nerabeek eta Gazteen Sustapenerako sailek bideratu dute, eta hona hemen ikastetxe bakoitzak jasoko duena: Ikastolak 9.833,24 euro, Herri Eskolak 6.284,02, Institutuak 10.191,98 eurokoa, Mekak 5.928,75 eta IMHk 6.000 eurokoa.

Diru-laguntza horiez gain, Gizarte Ongizate Sailak, Udaleko Berdintasun Sailak eta Sustapen Ekonomiko Sailak diru partida bat izendatu dute eskoletan sail horien helburuekin bat datozen ekintzak abian jartzeko. Osasunaren Hezkuntza programa gauzatzeko, esaterako, 17.999 euro emango ditu Ongizate Sailak, euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko ekintza eta egitasmoetarako 16.200 euro emango ditu Euskara Sailak, eta gaztematika-Gipuzkoako haurrentzako eta gazteentzako sustapen sistema garatzen laguntzeko 4.038 euro Haur eta Gazteria Sailak.

Ererikoak saihesteko tailerra antolatu dute Mendaron adinekoentzat

Ererikoak dira lesio eragile nagusiak Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko 64 urtetik gorako adinekoetan. Datu epidemiologikoen arabera, gutxienez urtean behin erortzen dira talde horretako pertsonen erdiak, eta ondorio fisikoak ez ezik, psikologikoak eta sozioekonomikoak ere izaten dituzte. Horregatik, ererikoak saihesteko tailerra antolatu dute Mendaroko Udaleko Gizarte Zerbitzuek, osasun zentrokoekin eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin lankidetzan. Lagun Betikoak jubilatuen elkartearen egingo da tailerra, maiatzaren 8an, 16:00etatik 18:00etara. Tailerra gaztelaniaz izango da, eta doakoa izango da. Hori bai, izena eman behar da aurrez ondorengo lekuetako batean: Osasun zentroan (943 756 143), Jubilatuen elkartearen edo udaletxean (943 033 282).

'Nerabezaroan laguntzen' formazio saioa gurasoentzat

Nerabezaroan laguntzen izenburupean gurasoentzako formazio saioak antolatu dituzte Kalamua Guraso Elkarteak, Elgoibar Ikastolako Guraso Kontseiluak, Arreiturre Institutuko Guraso Batzordeak eta Ongizate Sailak (gazteleiaz izango dira). Teresa Alonso psikologoak eskainiko du formazio saioa, bi egunetan: maiatzaren 4an eta maiatzaren 11n. Kultur Etxeko hitzaldi gelan izango dira, 18:00etatik aurrera. Hitzaldietan parte hartu nahi duten gurasoek maiatzaren 3a baino lehen eman behar dute izena ikastetxeko idazkaritzara joanda edo/eta elgoibargurasoformakuntza@gmail.com helbidera idatzita.

Udaberriko belarrak ezagutzeko irteera

Udaberriko belarrak ezagutzeko irteera antolatu dute maiatzaren 6rako. King Kongen elkartuko dira 10:00etan eta oinez egingo dute ibilaldia Aiastia aldera. Bidean, landareak baturko dituzte eta praktikak egingo dituzte haiekin. Irteera doan izango da, baina izena eman behar da aurrez Surya belar dendan edo 943 742 534 / 630 878 054 telefonoetara.

Maddalen Iriarte Elgoibarren izango da hilaren 5ean

Maddalen Iriarte EHBilduren legebiltzarkidea Elgoibarren izango da hilaren 5ean. Alderdiaren bersortze prozesuaz, Euskal Herrian hasi den aro berriaz eta etorkizuneko erronkez arituko da, Kultur Etxean, 19:00etatik aurrera. Ondoren, talde argazkia aterako dute. Horrez gain, maiatzaren 7an Gure Esku Dagok antolatuta egingo den herri galdeketa babestera ere azalduko da Iriarte Elgoibarrera.



► NORA PEDROSA

SURFLARIA

Debako lagun baten bitartez deskubritu zuen Nora Pedrosak surfa orain dela hiru urte. 12 urte zituen orduan. Etxekoek hasiera-hasieratik eskaini zioten babes eta laguntza, eta horri esker, eskubaloia, dantza eta ordura arte zeuzkan bestelako zaletasun guztiak baztertu eta bere denbora libre guztia surfari eskaintzea erabaki zuen. Ez da damutu hartutako erabakiaz. Surf tabla hartuta, udan zein neguan joaten da surfa praktikatzera Debara. "Lagun asko eta onak" egin ditu surfari esker, aina bereziki, Bitor Garitaonaindia, Xuban Loiarate eta Debako Zurrumbilo taldekoei eman nahi dizkie eskerrak, beraiei esker lortu duelako surfean barneratzea.

- AINHOA ANDONEGI -

◆ Nola hasi zinen surfean?

Nire Debako lagun batek, Bitorrek, surfa egiten du eta behin bera ikustera joan nintzen. Pila bat gustatu zitzaidan ikusi nuena. Olatu gainean zutik ibiltzea izugarria iruditu zitzaidan, eta surfaren bueltan ikusi nuen giroa ere asko gustatu zitzaidan. Argi neukan surfa probatu egin behar nuela. Zarauzko Pukas surf eskolan eman nuen izena, eta han egin nuen nire lehenengo surf ikastaroa orain dela hiru urte. 12 urterekin hasi nintzen, eta orduetik ez naiz geratu.

◆ **Surfa probatzen duten askok berehala lagatzen dute, tabla gainean zutik jartzea oso zaila delako eta horrek frustrazioa sortzen dielako. Ez al zenuen horrelakorik sentitu?**

Ez. Esan zidaten hasieran hori gertatuko zitzaidala, baina guztiz kontrakoa gertatu zitzaidan. Pila bat gustatu zitzaidan! Egoten dira egun txarrak, hala ere. Askotan orduak eta orduak pasatzen ditugu uretan eta ez dugu olatu bakar bat



"Zaletasuna baino gehiago da niretzako surfa: bizitzeko modua"

ere hartzen, eta egun horietan triste itzultzen naiz etxera. Baina badakit hurrengo batean egun hobea izango dudala.

◆ **Gogoan al daukazu zure lehenengo olatua hartu zenuen eguna?**

Bai! Zarautzen egin nuen lehenengo ikastaroko lehenengo egunean izan zen. Monitoreak bultzatzen zidan olatu bate-

tan eta zutik jarri nintzen. Bitsa zeukan olatua zen, ez pentsa sekulako olatua zenik, baina zutik jarri eta olatu batek eramaten zaituela sentitzea izugarria da.

◆ **Asko entrenatzen zara?**

Bai, asko. Dirudiena baino askoz gogorragoa da surfa, eta konstantzia handia eskatzen du. Berehala konturatu nintzen

surfean aurrera egiteko ordu asko sartu behar nituela, eta nik ez neuzkan hainbeste ordu libre. Eskubaloian jokatzeko nuen eta balleta ere egiten nuen, eta ez nion nahi beste denbora eskaintzen surfari. Orain dela bi urte dena uztea erabaki nuen, ahal nuen denbora gehiena surfari eskaintzeko. Egutero joaten naiz Debara surf egitera, udan zein neguan. Orain, Ibon Amatriainekin hasiko naiz entrenatzen Zarautzen. Ikastaro asko egin ditut, Haritz Larrañaga eta Axi Muniainekin ere ibili izan naiz ikastaroak egiten eta Santoña (Cantabria) surf udalekuetara ere joan nintzen. Atzeriko jende asko biltzen da udaleku horietan, eta gauza pila bat ikasten da. Kanpoko lagun asko egin nituen!

♦ **Fisikoki sasoiaren egotea ere garrantzitsua izango da, ezta?**

Bai, nik entrenamendu zehatzak egiten ditut surferako. Debako kirol hezitzaile batekin egiten ditut entrenamendu saioak. Korrika, flexioak... entrenamendu gogorak dira. Apneak ere egiten ditugu, ur azpian arnasa hartu gabe ahalik eta denbora gehien egon ahal izateko. Minutu bateko apnea egitea lortu izan dut uretatik kanpo. Baina normalean ez zara denbora luzez geratzen ur azpian. Egia

“Olatu bat hartu eta ondo surfeatzek sekulako satisfazioa ematen du”

da, baina, luze egiten dela tarte hori. Horrez gain patinetean ibiltzen naiz, azken batean, mugimenduak berberak direlako. Uretatik kanpo entrenatzeko modurik onena patinetean ibiltzea da.

♦ **Etxean nola hartu zuten surfean hasi- tearen kontua?**

Ondo, hasieratik eskaini zidaten euren babesa eta pila bat animatzen naute. Etxekoak asko inplikatu dira nirekin, eta gehienetan beraiek eramaten naute Debara autoz. Taula ere eraman behar izaten dut, eta trenez ez da batere eroso. Gustatuko litzaidake kostaldera joatea bizitzera! Azken batean, ia han bizi naiz! Elgoibarren oso gutxi ibiltzen naiz kalean. Denbora librea daukadan bakoitzean uretan nago!

♦ **Zein urte sasoi da zure ustez surfa egiteko onena?**

Udaberria eta udazkena gustatzen zaizkit gehien. Neguan hotz handiegia

egiten du, eta olatuak oso handiak izaten dira normalean. Udan, aldiz, temperatura oso ona da, eta olatuak ez dira handiak izaten, baina hondartzan jende gehiegi egoten da. Bainua hartzen duen jende asko surfisten gunean sartzen da, eta arriskutsua izaten da. Bainua hartzen dutenek uste dute gu sartzen garela beraien eremuan, baina nik esango nuke surflariok gehiago errespatzen dugula euren eremua. Ikuspuntu desberdinak ditugu! Guretzako udan bainulariz beteta egoten da hondartza, eta eurentzat, aldiz, surfistaz beteta. Hortaz, udaberria eta udazkena gustatzen zaizkit gehien. Temperatura ez da neguan bezalako hotza, hondartzetan ez da jenderik egoten eta olatuen tamaina niretzako egokia da.

♦ **Zein tamainatokia izan da hartu duzun olatu handiena?**

Bi metro azpitik izango zituen. 1,8 edo 1,9 metro ingurukoa. Ez da oso handia, baina uretan zaudenean sekulakoa ikusten da.

♦ **Surfa zuretzat zaletasuna da ala txapelketetan ere hartzen duzu parte?**

Momentuz ez naiz txapelketetan lehiazten, baina Debako herri txapelketetan hartu izan dut parte, jakiteko zer sentitzen den lehiazterakoan. Aurten ere hartuko dut



parte Deban. Gustatuko litzaidake egunen baten txapelketaren batean parte hartzea. Oraindik ez daukat lehiatzen hasteko maila nahikorik, baina iritsiko da eguna. Dena dela, surfa ez dut lehiaketa moduan hartzen. Debako entrenatzaileak eta Zarauzko surf eskolako kideek itsasoa ezagutzen eta maitatzen ere erakusten dute: korranteak non dauden, nondik sartu behar den uretara... Beste eskola batzuk dena lehiaketan oinarritzen dute, baina hauek itsasorekiko errespetuan oinarritzen dira. Niri surfak ematen dit behar dudan poztasun guztia. Olatu bat hartu eta ondo surfeatzeak sekulako satisfazioa ematen du.

♦ **Mundakako ezker olatuak ospe handia dauka surfarien artean. Probatu duzu sekula?**

Ez, niretzako handiegia da olatu hori, baina egia da oso olatu ona dela. Niri ere ezkererantz doazen olatuak gustatzen zaizkit gehien: Taula gainean ezkerreara begira eta hondartzari bizkarra ematen. Mundakara joan izan naiz surf txapelketa ikustera, eta aho zabalik geratu izan naiz surfariak duten mailarekin, baina ni ez naiz han sekula sartu olatuak hartzera. Egunen baten probatuko dut.

♦ **Zer sentitzen duzu olatu gainean zoazenean?**

Sekulakoa da! Olatuaren zain egon, olatua hartu eta taula gainean zutik jartzea izugarria da. Baina hala ere, niri gehien gustatzen zaidana da surfaren bueltan sortzen den giroa. Lagun oso onak egin ditut surfari esker. Deban oso jende jatorra aurkitu dut. Zurrumbilo surf taldekoek pila bat lagundu didate, eta eskerrak eman behar dizkiet. Surferako erraztasun guztiak eman dizkidate. Klubeko bazkide egiteko itxaron zerrenda handia dago, eta herrikoek daukate lehentasuna, beraz zaila daukat, baina beraien dutxak eta aldagelak erabiltzeko aukera ematen didate, eta hori, neguan bereziki, asko eskertzen da.

♦ **Izan al duzu sustorik inoiz?**

Bai. Zarautzen behin olatu azpiratu sartu nintzen eta ez nekien nora egiten



“Surfean garrantzitsua da beti norbait izatea inguruan”

nuen igeri, gora ala behera. Ama kanpoan zegoen ikusten eta esan zidan ia uretara salto egin zuela. Taularekin kolpeak ere hartu izan ditut, baina lesio gogorrik ez dut izan momentuz. Horrelako uneetan ingurukoek beti laguntzen dute. Deban ere izan nuen beste susto bat, ezin nintzen ur ertzera itzuli, eta Xuban Loiarrek lagundu zidan irteten. Surfean garrantzitsua da beti norbait izatea inguruan. Ni ez naiz sekula bakarrik sartzen uretara.

♦ **Zure surf taulak zein ezaugarri ditu?**

Txikien multzokoa da, arina eta maniobrak egiteko egokia. Nik ez ditut maniobra asko egiten, baina nire taulak horretarako balio du. Taula handiak hasi-berrientzako dira, egonkorragoak direlako, eta maila hobetu ahala, taula txikiagoak erabiltzen ditu jendeak.

♦ **Surflari ezagun gehienak gizonezkoak dira. Neska gutxi zabilzate surfean?**

Batzuk bagabiltza, baina gehienak mutilak dira. Deban esaterako, 20 urtetik beherakoek artean bi neska gabil-

tza bakarrik. 30-40 urte bitartekoetan badaude gehiago, baina ez gehiegi. Eta ez da Debako kontua soilik, Gipuzkoan eta Euskal Herrian gauza bera gertatzen da. Ez dakit zergatik izango den, baina mutilak gehiago animatzen dira surfa egitera neskek baino. Nik animatuko nituzke neskek surfera, benetan merezi duelako probatzeak. Lagunei ere esaten diet, baina beraien nahiago dute eskubaloia. Nire ahizpa orain hasi da surfa probatzen.

♦ **Itsasoa handia da, eta berez ez dauka jaberik, baina surfak baditu bere arauak. Nola erabakitzen da olatu bakoitza nori dagokion?**

Gai konplikatu da! Leku askotan haserre handiak sortzen dira. Bertakoak direnei ez zaie gustatzen kanpoko jendea etortzea “beraien” olatuak kentzera eta asko haserretu egiten dira. Berez, olatuaren bitsetik gertuen dagoenak dauka lehentasuna. Horrez gain, olatuak hartu gabe denbora gehien daramanak ere lehentasuna dauka.

♦ **Etorkizunera begira, zein dira zure asmoak?**

Gustura joango nintzateke Australiara surf egitera! Maldivak ezagutzea da nire ametsa! Oso serio hartu dut surfa, zaletasuna baino gehiago, bizitzeko modua da niretzat. Dena dela, hankak lurrean ditut eta badakit surfetik bizitzea ezinezkoa dela, baina zaletasun bezala ahal dudan denbora gehien irautea gustatuko litzaidake.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Sigmako aparkalekuan idi probetarako erabiltzen duten harriak uzten dituzte: "Sigmako probalekua aparkalekua ere bada, eta idi probak ez daudenean harria trabatik kendu beharko lukete. Autoa gaizki aparkatzeagatik isurak jartzen dituzte, baina harria edozein lekutan utzi daitekeela dirudi". Udaleko arduradunek esan dute harria erabiltzen dutenen ardura dela harria trabarik egiten ez duen lekuan lagatzea. Hori ez badute betetzen, neurriak hartu beharko dituztela adierazi dute.



Mendaroko Garagartza kalean asfaltoa egoera txarrean dago: "Mendaroko Garagartza kaleko lurra. Landa erretegitik beherakoa, ez dago batere ondo. Zuloak daude eta komeniko litzateke lantzea. Erori dira dagoeneko bi lagun, eta batek, gainera, sekulako kolpea hartu zuen. Beste inor erori aurretik eskertuko genuke konpontzea.

Zergatik kendu dute Interneterako WiFi konexioa kiroldegian?: Kiroldegiko gimnasia joaten den erabiltzaile batek esan digu lehen WiFi konexioa zegoela kiroldegian, eta gimnasia joaten zenean musika jartzeko erabiltzen zuela. Duela pare bat hilabete WiFi kendu zutela esan du. Ramon Mujika kirol patronatuko zuzendariak erantzun du zerbitzu hornitzailearekin arazoak izan dituztela.



Urazandiko haur parkean iturria jarri dute: "Urazandiko haur parkean ume asko ibiltzen dira jolasen, eta bazegoen iturriaren beharra. Azkenean jarri dute, beraz, txalo bat eta eskerrik asko Udalari".



Santiago Ansola Arrieta

"Azkubé"

2017ko apirilaren 10ean hil zen, 92 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



“Sentitzen abilak izan diren guztiek topatu diote zerbait Arantzazuri”



Joseba Longarte ARANTZAZUKO ATERPETXEAREN KUDEATZAILEA

Ofizios irakaslea da Joseba Longarte (Mendaro, 1965), baina bi urteko eszedentzia hartu eta erronka berri bati heldu dio. Arantzazun zabaldu berri duten aterpetxea kudeatuko du, baina ostalaritzan bidea egin baino gehiago bizi-estilo bat bilatzen du han, euskal kulturgintzaren altzoa izan den inguru hartan. Eta hain justu ere horixe du helburu nagusia: Arantzazu zer izan den eta zer den ezagutaraztea.

- AINARA ARGOTIA -

♦ Zabaldu duzue aterpetxea Arantzazun. Ez da motza izan bidea.

Ez da izan, ez. 2015ean Gandiaga Topagunea zabaldu zuten, baina ez bere osotasunean. Proiektua aspaldikoa da, ia mende hasierakoa. Orduan, Telesforo Zubiarrainen, fraileen orduko buruaren, burutazioa zen Arantzazu berritzea, Arantzazuri jite modernoago bat ematea, eta ez espiritualtasunari begira barrik, nahi zituelako kultura eta natura ere potentziatzea. Hala, fraileen kolegio zaharra zena topagune izateko proiektatu zuten, kultura, natura eta espiritualtasunaren gune izateko. Eta proiektu horretan, 2001eko aurreneko planoetan, Gandiaga topaguneko izkina hau, gaur egun aterpetxea den hau, aterpetxe izenarekin izendatuta ageri da. Gero, aurrekontu kontuengatik-eta, pusketaka joan ziren egiten: lehenengo, Gandiaga Topagunea egin zuten, gero parketxea, eta azkenean, hamabost urte geroago, aterpetxea zabaldu dugu.

♦ Aterpetxea zabaldua osotu da beraz Arantzazuren eraberritzea.

Bai. Zubiarrainek ez zuen bere ametsa beteta ikusi, duela bi urte hil zelako, baina gauzatu da haren nahia, lankidetzan. Elkarlan horretan parte handia izan dute, batetik, frantziskotarrek, eta bestetik, Gipuzkoako Parketxe Sareak. Frantziskotarrek Arantzazu Gaur fundazioa dute sortuta Arantzazu berritzeko, eta horko partaide dira frantziskotarrez gain, Mondragon Taldea, Diputazioa, Oñatiko Udala eta Kutxa Fundazioa. Eta gero parketxearen kudeatzaile moduan, Diputazioa eta haren baitako Gipuzkoako Parketxe Sarea daude. Denen arteko elkarlanaren emaitza da gaurko Arantzazu.

♦ Zerk lotu zaitu zu zeu Arantzazura?

Fase ezberdinetan iritsi naiz ni hona. Umetan, gurasoekin. Arantzazu, Urbia, Aizkorri... inguru hau da arreba eta bion ume-



Arg.: Maria Longarte

tako aberria. Gero, handitzen gindoazen heinean, urrutzen ere hasi ginen Arantzazutik, besteak beste ez genuelako erlijioa gure gurasoek sentitzen zuten eran sentitzen. Hala, nahikoa apartatu ginen gure umetako aberri honetatik, baina gertatu zen, -bizitzan sarri gertatzen diren eran-, kasualitatez, Andoni Egañak gonbidatu zuela gure aita hemen egiten den bazkari xeble batera. Artzainak, trikilitariak, bertsolariak, ostalaritzako jende ezaguna... batzen dira, eta mahai horretara batu ziren orain hemezortzi bat urte gure aita eta arreba. Eta hain gelditu ziren liluratuta hemengo giroaz, hemengo jende eta inguruaz, erabaki nuela neuk ere bizi

behar nuela hori. Ama hil berria zen gurean, eta nahikoa garai zaila bizi genuen, baina etorri ziren hona eta halako argitasun bat topatu zuten aitak eta arrebak. Eta pikatuta, etorri nintzen hurrengo urtean ni bazkaltzera, ezagutu nuen hemen gaur nire bikotekidea dena, itzuli nintzen umetako aberrira eta erabaki nuen Arantzazu izango zela nire bizitokia. Arantzazu eta Oñatin sus-traitu nintzen, eta orain hamabost bat urte, Oñatin irakasle ofizioan ari nintzela, Arantzazu berritzeko proiektuaren berri izan nuen. Eta ekin nion burubelarri proiektua idazteari.

♦ **Bistan da Arantzazuk asko esan nahi duela zuretzat. Ez duzula hau ostalaritzan bidea hasteko aukera hutsa.**

Ez. Ni ez naiz ostalari sentitzen. Neure buruarekin trankil bizitzeko eta konforme bizitzeko bizi-estilo bat aukeratu dut. Irakas-kuntzan bi urteko eszedentzia hartuta heldu diot erronka honi, Gipuzkoako Parketxe Sarearekin bi urterako kontratua sinatuta. Dena den, nik ez dut hau negozio gisa ikusten. Nik ez dut ardura hau hartu aberasteko, ez behintzat ekonomikoki. Auzoak lagunak ditut, eta garbi daukat ez naizela ni haientzat kompetentzia izango. Beste bezero tipologia bat da gurea. Hau aterpetxe bat da, 56 laguntzako, eta esan gabe doa gonbidatuta zaudetela denok etortzera. Literak dauzkagu lotarako, eta surik gabeko sukalde bat, etxetik dakarten jatekoa berotu eta jateko. Batzuek ekarriko dute etxetik jatekoa, baina beste askok ez eta auzoko jatekietan jango dute. Hori da asmoa, eta proiektuan argi jaso dugu: proiektua auzoari zabaldu nahi diogu.

♦ **Arantzazun egin den guztiak estilo bati erantzuten dio, eta iruditzen zait oso zeure egiten duzula estilo hori.**

Bai. Arantzazun sentiitzen dudana hori hitzetara ekartzeak beldur pixkat ere ematen dit, baina lasaitasuna, patxada, barruko bake hori... dira nik hemen sentitzen ditudanak. Ez da Hollywoodek saltzen digun zoriontasun edo lilura hori; gehiago da neure tokian nagoela jakitea. Gandiaga poetak esaten zuen bera Arantzazun sustraitutako zuhaitz bat zela, eta nik halako zerbait sentitzen dut.

♦ **Eta zer du ba Arantzazuk?**

Anekdotak bat kontatuko dizut. Behin etorri ziren hona Chiapas (Mexiko) inguruko hiru chaman, eta pasiaran ibili ostean, esan ziguten: 'Hemen baduzue puntu teluriko bat lurrari imantzen edo lotzen zaituena'. Eta puntu horretan, Arantzadikoek Gipuzkoako aztarnarik zaharrenak aurkitu dituzte. Beraz, duela 12.000 urte ere bazeukan inguru honek zerbait jendea inguratzen. Esaten dute 500 urte direla hemen Ama Birjina agertu zela, baina konparaziora 500 urte ez dira ezer inguru honek daukan historiarekin. Mendebaldeko haizeak jotzen duenean ere, hemen batzen dira inguruko abere guztiak. Badu, beraz, leku honek babeslekutik

zerbait. Altzoa esaten zion Gandiagak honi, eta umetoki kosmikoa, Oteizak. Sentitu eta sentitutakoa plasmazten abilak izan diren denek topatu diote zerbait inguru honi. Oteizak hemendik eraman zuen bere ideia estetiko guztia ere.

♦ **Arantzazuk jendea erakartzeko osagai guztiak ditu, baina aldi berean, urtaroei horren lotua dagoen leku batean aterpetxe bat kudeatzea ez da erronka makala izango ba, ala?**

Egia da Gabonetatik otsaila amaiera arte hemen ez dela mugimendu handirik izaten, baina dagoen lekuan egoteari nik onura gehiago ikusten dizkiot trabak baino. Estilo kontua da. Garai batean egon ziren bi korrante. Batzuek proposatzen zuten hau Lourdes bihurtzea eta Arantzazutik Urbiara bidea zabaltzea eta han paradore handi bat eraikitzea. Fraga Iribarne bera ere etorri zen Turismo ministro zela proiektu hori gauzagarria zen ikustera. Beste batzuek, berriz, nahiago izan zuten azpiegitura handirik sortu gabe honek bere izaerari eustea, eta gure zorionerako, bigarren korranteak irabazi zuen.

♦ **Zer perfiletako bezeroak bilatzen dituzue?**

Frantziskotarrek erromesak erakarri nahi dituzte, eta Gipuzkoako Parketxe Sareak, eskola-umeak. Eta horiez gain, nire erronka pertsonala da Arantzazura gazteak erakartzea. Aste Santua iritsitakoan, hona etortzen ginen gu, lehengusu zaharrek erakutsi moduan, umetasunetik heldutasunerako jauzi hori ematera. Etortzen ginen Arantzazura, joaten ginen Urbiara, pasatzen gure gaur eta egiten ginen nagusi.

Badago beste kontu bat ere: Niri gertatu zait Ikastolan hezitako 20 urteko ikasleei Oteizaren Apostoluen argazkia erakutsi eta haiek ez jakitea noren lana den. Nola liteke, baina, Euskal Herrian hezitako neska-mutilek ez jakitea hori edo ez jakitzea Joan Mari Torrealda bat edo Ikastolei musika jarri zien Manolo Urbietarena hemendik pasatakoak direla; edo ez jakitzea euskal sindikalgintzan edo kulturgintzan itzal handia izan duten beste batzuk edota ETAn ibilitako zenbait ere hemen batzen zirela eta ez jakitzea Euskaltzaindia bera ere hemendik sortua dela.

♦ **Transmisioa landu nahiko zenuke beraz.**

Bai, ni bokazioz irakaslea naiz eta. Baina transmisioaz ari naizenez ez naiz ari kultur maila handiko jendearen lana edo haien biografia handiak ezagutarazteaz; bakarrik ari naiz bizikera bat transmititzeaz. Euskal Herrian ume askok ez dakite kilker bat harapatzen ere. Gure umeek bai, Mendarokoak direlako eta zorte hori izan dutelako, baina askok ez dakite txotx bat hartu eta kilkerretan ibiltzea zer den. Eta kilkerrena txikieria bat da, baina badu bere zera ere. Euskal Herrian baseritik kalera jaisten hasi zirenean, baserriko jendeak kilkerak eramaten zituen kalera euren sustraiak sentitze aldera. Kalean, fundizioan lanean jardungo ziren, baina kilkerria baserri ondoko sorokoa zuten.

“Neure buruarekin trankil bizitzeko eta konforme bizitzeko bizi-estilo bat aukeratu dut”



1965

Elugio Astigarragak ekarri digu 1965. urteko erretratu zahar hau. Azkarate bailaran aterata dago argazkia, Ekaitz mendian. Gizon talde hau pinuak landatzen aritu zen egun horretan. Gogora ditzagun zeintzuk diren: **Zutik:** Lorenzo Badiola (†), Bittor Zubizarreta (†), Jose Mendikute, Ramon Osoro (†), Bittor Elortegi (†). **Behean:** Felix Agorria (baso-jabea) eta Jose Mari Astigarraga (†).





Haurreskolak

www.haurreskolak.net

MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK
(0-2urte)

Elgoibarko Haurreskola 943 742 141
elgoibar.elgoibar@haurreskolak.eus

Debarrenean kritik irteten gaudela esateko zantzuak ikusi dituzte 'Ekonomia gurean' saioan parte hartu duten aditu eta arituek



BARREN astekariak eta Soraluzeko Pil-pilean aldizkariak Ekonomia Gurean izeneko saioa antolatu zuten atzorrako, Tokikomekin eta IMHrekin elkarlanean, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin. Debarreneko industriaren argazkia osatu zuten atzo IMHn egin zen *Ekonomia gurean* saioan parte hartu zuten aditu eta arituek: Josu Agirrezabala Mendaroko Egile enpresa taldeko salmenta arduradunak, Ixaka Egurbide IMHko zuzendariak eta Miren Estensorok, Orkestra, lehiakortasunerako euskal institutuko kideak. Lehiakortasunari dagokionean, Debarrena erdi aldean dagoela jakinarazi zuen Estensorok, Barne Produktu Gordinaren aldagaia kontuan hartuta. Langabezia tasa, aldiz, %13koa du Debarrenak eta horrek ez du horren leku onean uzten gure eskualdea, Gipuzkoako batz bestekoaren gainetik dabilelako. Hala ere, itxaropentsu egoteko arrazoiak egon badaudela aipatu zuten guztiek. Ixaka Egurbidek esan zuen IMHk apenas duela lan-poltsan ikaslerik eta horrek esan nahi duela enpresak ari direla gazteak kontratatzen; gazte kualifikatuak. Bai Egurbidek eta bai Josu Agirrezabalak aipatu zuten horixe dela hain justu ere enpresek behar dutela orain: langile kualifikatuak eta horretan lanbide Heziketa egiten ari den ekarpena nabarmendu zuten. Egile taldearen argazkia ere egin zuen Agirrezabalak eta esan zuen eurek ez dutela horrenbeste igarri krisia, euren produktuak prezisio handikoak direlako eta bezeroak nahiko dibersifikatuta dituztelako. Eta hor ikusten du etorkizuna: espezializazioan, lan kualifikatuan.

Elgoibarko Udalak 183.000 euroko diru-laguntza emango dio Elgoibarko Izarrari

Elgoibarko Udalak 183.000 euroko diru-laguntza emango dio Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea elkarteari, 2017an euskararen erabilera sustatzeko ekintzak eta haurrentzako aisia hezitzaileko egitasmoa finantzatzeko. Aurten ere, bi udal sailetatik bideratuko da diru-laguntza: Euskara Sailetik, 123.000 euro, eta Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapenerako Sailetik, 60.000 euro. Euskara Sailak ondorengo laguntzak eman ditu: Hedabide Sailerako 60.100 euro, Aisia-Erabilerrako 50.400 euro, eta Santa Ageda, Eguberrietako Bertso saioa, udazkeneko kultur eskaintza, Euskarak 365 ekimena eta nazio mailako ekimenterako 12.500 euro. Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapenerako Sailak Atxutxiamaikea egitasmoa finantzatzen laguntzeko eman ditu 60.000 euro. Elgoibarko Izarrak eskerrak eman dizkio Elgoibarko Udalari, eskaintzen dion laguntzarentzat. Udalaren laguntza ezinbestekoa da Elgoibarko Izarraren proiektuak gauzatzeko, eta, aurrerantzean ere, bide beretik segitzeko asmoa azaldu du. Izan ere, Elgoibarko Izarraren ustez, ezinbestekoa da administrazioaren eta herri ekimenaren arteko elkarlana, gure herrian euskara eta euskal kultura sustatu eta haurrentzako aisia hezitzaileko eskaintza osatu ahal izateko.

MAIATZAK 1

langileok

EUSKAL ESTATUA

BURUJABETZA OSOA ALDAKETA SOZIALERAKO

LAB

BAIONA. Geltokia, 11:00
BILBO. Zabalburu, 12:00
IRUÑEA. Gaztelu plaza, 12:15

Bidebarrieta, 1 **LAB Eibar** 943 82 04 89

Borja de Miguelek irabazi du Mugertza krosetako argazki lehiaketa



Argazki lehiaketako sarituak antolatzaileekin.

Mintxeta Atletismo Taldeak jakinarazi duenez, 26 argazki aurkeztu dira Mugertza krosari buruzko hirugarren lehiaketara, iaz baino hamabi gutxiago. Lehiaketara aurkeztutako argazki guztiak Tantaka tabernan egon dira ikusgai azken hilabeteetan, eta argazki gustukoenari botoa emateko aukera izan dute herritarrek. Jokin Zubiaurre elgoibartarrak aurkeztutako argazki batek irabazi du sari hori. Epaimahaiak, berriz, Borja de Miguel Iriondo elgoibartarrak aurkeztutako argazkiari eman dio lehen saria (200 euro). Bigarren saria (100 euro), berriz, Luis Epelde azkoitiarrak jaso du.

Cristal Cup Kopa Elgoibarrera ekarri dute C.D. Elgoibarreko jubenilek



C.D. Elgoibarreko Ohorezko Mailan diharduen jubenilen taldeak Cristal International Cup txapelketa irabazi du. Praia de Vieran (Portugal) jokatu da txapelketa honen bigarren edizioa Aste Santuan. Elgoibartarrek bi partida irabazi eta beste bat galdu egin zuten lehen fasean. Kanarietako Atletico Apolinario eta Portugaleko Vierense taldeen aurka irabazi egin zuten, eta Portugaleko Marinhense taldearen aurka, berriz, galdu. Finalerdietan Leiria talde portugaldarra kanporatu zuten, penaltietan. Finalean Pinto talde madrildarra izan zuten aurkari. Arauzko denbora husnako berdinketarekin bukatu ondoren, penalti jaurtiketatik erabaki zen txapelketa, eta elgoibartarrek madrildarrek baino finago ibili ziren jaurtiketatik.

'Kirola eta Osasuna' hitzaldi zikloa, maiatzean

Elgoibarko Udalak *Kirola eta Osasuna* izeneko hitzaldi zikloa antolatu du maiatzerako. Ohitura osasuntsuez, elikaduraz, guraso eta entrenatzaileen arduraz kirol heziketan edota gure osasuna eraikitzeko Elgoibarrek eskaintzen dituen aukerez hitz egingo dute Unai Arrietak (Kirol Psikologoa eta 60 + programako arduraduna) eta Angel Maria Lopezek (Kirol Fisioterapeuta eta psikoneuroinmunologian espezialista). Hitzaldiak euskaraz izango dira, maiatzeko lau martitzentan, Kultur Etxean. Saiokak 19:30ean hasiko dira eta sarrera doan izango da. Era berean, Udal Kirol Patronatuak bizkar hezur arazoak dituzten pertsonentzako ikastaroa antolatu du. Maiatzaren 3an hasiko da, astelehenetan eta asteazketan eskainiko da, 19:00etan, Mintxetan.

Udako Kirol Campuserako izen-ematea

Udal Kirol Patronatuak antolatzen duen Udako Kirol Campusean izena emateko epea maiatzaren 2tik ekainaren 2ra egongo da zabalik. Ekainaren 26tik uztailaren 21era, astelehenetik barixakura, 9:30etik 12:30era, kirol desberdinak (ur-jolasak, atletismoa, BTT, orientazioa, futbola, eskubaloia, herri kirolak, frontoiko jolasak, mendizaletasuna, buzeroa, patinajea, e.a.) egiteko aukera izango dute 2006 eta 2010. urteen bitartean (biak barne) jaiotako haurrek. 2002-2005. urteen bitartean jaiotako gazteek, berriz, Goi Mailako Kirol Udalekuetan maila handiagoko kirola egiteko aukera izango dute. Olaizaga kiroldegian eman behar da izena.

Kromoak trukatzeko zita

C.D. Elgoibarrek jakinarazi duenez, apirilaren 30a, domeka, izango da aurten atera duten kromo bilduma betetzeagatik opariak jasotzeko azken eguna. Hori dela-eta, Kalegoen Plazara irtingo dira egun horretan, 18:00etik 19:30era, hala nahi edo behar dutenekin kromoak aldatzeko.

Garaipenak eta sailkapenak eskuetatik ihes egin zion Tecnifuelleri



Jubenil mailako Espainiako Eskubaloi Txapelketakoko bigarren fasea jokatu zuten lau taldek, tartean Sanloko Tecnifuellek, aurreko asteburuan, Olaizaga kiroldegian. Fasea irabazteko aukerekin ailegatu zen Tecnifuelle Kataluniako Handbol Sant Quirze taldearen aurka jokatu zuten hirugarren eta azken partidara. Partida parekatua jokatu ostean, partida amaitzeko hogeitasei segundoren faltan, norgehiagoka berdintzeko jokaldia izan zuten elgoibartarrek, baina ez zuten golik sartu eta 29-30 irabazi zuten Sant Quirzekoek. Hala, Elgoibarko faseko lehen postua eskuratzeaz gainera, Espainiako Txapelketako azken fasea jokatzeko sailkapena lortu zuten kataluniarrek. Kantabriako Emancipa Perera taldeak lortu zuen bigarren postua Elgoibarko fasean, eta hirugarrena Tecnifuellek.

Emaitzak

FUTBOLA

Haundi 1 – Mondragon 2 (Oho. Erreg.)

ARETO FUTBOLA

Ibarra 5 – Concepto Egile 3 (Naz. B)

Agenda

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 29

11:00 Elgoibar – Real Union (Infantil Txiki)

16:30 Haundi – Vasconia (Oho. erreg.)

18:30 Elgoibar – Amaiak Bat (Oho. jub.)

17:00 Elgoibar – Zarautz (1. erreg.)

Domeka, 30

16:00 Elgoibar - Antzuola (Aleb.)

ARETO FUTBOLA (IMH kiroldegian)

Domeka, 30

12:30 Concepto Egile – Guadalajara (Naz. B)

Iñaki Konde eta Iñigo Ortuoste txapeldun Euskadiko Duatloi Kros Txapelketan, beteranotan

Euskadiko Triatloi Federazioak antolatuta, Euskadiko Duatloi Kros Txapelketa jokatu zuten Galdakaon joan den domekan. Duatloi modalitate honetan, errepi-deak alde batera utzi eta mendi bideetan barrena ibiltzen dira kirolariak mendiko bizikletarekin. Parte hartzaileek lau kilometro eta erdi egin zituzten korrika lehenik. Gero, mendi bizikleta hartuta, 13,5 kilometroko ibilbidea osatu zuten, eta 2.250 metroko antxitxikako probarekin amaitu zuten duatloi kros lasterketa. Iñigo Ortuostek 20. postuan amaitu zuen proba, 1:14:45eko denbora eginda, eta garai-pena eskuratu zuen beteranoetan, 50-60 adin tartekoen mailan. Era berean, Iñaki Kondek 60 urtetik gorakoen mailan lortu zuen Euskadiko txapeldun izatea, proba 1:43:20ko denboran amaituta.



Maite Maiora nagusi Aloñako Igoeran

Maite Maiorak aurkari gogor-
rrak zituen Aloñako XIII. Igoeran,
Oihana Azkorbebeitia eta
Maria Zorroza, besteak beste,
baina sasoi betean dagoela era-
kutsi zuen eta zortzi minutuko
aldea atera zion Azkorbebeitiari
helmugan. Gainera, probako
errekorra ondu zuen, 22,6 kilo-
metroko proba 2.20.40ko den-
boran eginda. Mayi Mujika
elgoibartarrak ere parte hartu
zuen proban eta zazpigarren
postua eskuratu zuen emakumez-
koetan, 2.47.42ko denbora
eginda.



LANA.....
Eskaerak

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka. ☎ 600 319 516

Parketa jarri eta etxeak margotzeko prest nago. Esperientzia handia daukat. ☎ 635 005 513

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Interna. ☎ 612 493 242

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Interna. ☎ 662 430 951

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka zein interna moduan. ☎ 632 417 241

Ingeleseko klase partikularrik ematen dizkiet, 3 urtetik aurrerako umei. ☎ 632 417 241

Neska gaztea, haurrak zaindu eta etxeko lanetan laguntzeko prest. Goizean. Esperientzia, gizarte Hezkuntzan titulua eta EGA. Adinekoei konpainia egiteko ere prest. ☎ 688 639 371

Garbiketa lanak egin eta nagusiak zainduko nituzke. ☎ 631 305 697

Emakume elgoibartarra eta euskalduna etxeak garbitzeko prest. ☎ 649 782 967

Adinekoak zaintzeko prest nago, goizez eta arratsalde. ☎ 628 529 252

Pertsona nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo interna moduan. ☎ 602 193 095

Neska gaztea haurrak zaintzeko eta etxeko lanetan laguntzeko prest. Esperientzia daukat. Gizarte Hezkuntzan titulua eta EGA. ☎ 688 639 371

Nagusiak zaintzeko prest nago, egun osoz edo orduka. Garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 632 564 679

Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago, egun osoz edo orduka. ☎ 634 209 087

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. ☎ 631 613 245

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Asteburuetan edo interna moduan ere bai. Esperientzia daukat. ☎ 631 562 461

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. ☎ 648 039 187

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Asteburuetan ere bai. Ordu-tegi malgua. ☎ 632 776 905

Adinekoak zaintzeko eta gabiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 653 178 376

Adinekoak zainduko nituzke. ☎ 632 061 103

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. ☎ 632 436 462

Adinekoak eta umeak zaintzeko edo zerbitzari lanetarako prest nago. ☎ 642 424 173

Gizonezkoa eskaintzen da adinekoak zaintzeko, banaketa lanak egiteko, sukalde laguntzaile lanetarako... Edozein lan egingo nuke. ☎ 650 029 176

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka. ☎ 632 951 901

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka. ☎ 632 983 250

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientzia handia daukat. ☎ 635 005 536

Garbiketa lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia eta erreferentzia onak ditut. ☎ 688 712 075

Garbiketa lanak egiteko eta adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. ☎ 632 850 715

Garbiketa lanak egiteko eta adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. ☎ 612 493 242

Garbiketa lanak egiteko eta adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. ☎ 612 493 242

Garbiketa lanak egiteko eta adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. ☎ 662 430 951

Elkar-teak edo portalak garbitzeko prest nago. Euskalduna naiz. ☎ 617 571 210

ETXEBIZITZAK.....**Alokairua**

Pisu bila nabil. Mendaron, Sor-luzen edo Elgoibarren hartuko nuke alokairuan. ☎ 626 292 587

LOKALAK.....

50 metro koadroko lokala alokatu edo saltzen dut, Basariten. ☎ 669 245 520

Taberna alokatzen da Elgoibar erdigunean. Terraza handia dauka. ☎ 656 724 401

Garaje marraduna alokatzen dut Pista Beltzean. ☎ 609 951 243

BESTELAKOAK.....

Karakate bidean giltzarporik gabe baino loturik zeuden hiru giltz galdu ditut. ☎ 615 781 629

OSPAKIZUNAK.....

1967koen kinto bazkaria, maiatzaren 20an. 11:30ean elkartuko dira Kalegoen plazan. Bazkaria, Sigman. 70€ sartu, Bankoako kontu honetan maiatzaren 16rako. ES44 0138 0020 1600 10783437 ☎ 639 263 501

administradores
Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Euzko Alkatekideen Elkartearen Bazarreko Administrazioak**ROSA Mª
PINTADO**

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net**Gure komunitateko eraikinak sei solairu dauzka. Lehenengo bostetan etxebizitzak daude, eta azken solairuan, ganbarak. Enpresa sustatzaileak aparte saldu zituen ganbara hauek, eta beraz, badira batzuk eraikin berean bizi diren etxe-jabeenak direnak, baina, beste zenbait ganbararen jabeak eraikin honetatik kanpo bizi dira. Jakin nahiko nuke ia posible den ganbaren jabe guztien artean beste komunitate bat eratzea, eskriturretan ez baita esaten ezer horren inguruan.**

Aukera dago ganbaren jabeak beste azpi komunitate bat osatzeko euren gastu eta ardurak kudeatzeko. Lehendabizi, baina, zehaztu behar da balizko komunitate horretako jabeek ba ote duten zehaztuta ganbarentzako partaide-kuotaren bat, partaide-kuota orokorraz gain.

Ganbarentzat aparteko partaide-kuota bat zehaztuta dagoen kasuetan, aukera dago bi komunitate bereizteko, baina hori zehazturik ez baldin badago, ezingo da azpi komunitaterik sortu. Bestela, batzarraren gehiengoak onartuz gero aukera legoke komunitate hori sortzeko.

AHOLKUA: Azpi komunitate hori eratuko balitz, kideek aukera izango lukete euren diru-sarrera propioak eta gastuak kudeatzeko, bai eta euren interesekoak diren edo euri eragiten dieten kontuak kudeatzeko.



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Ekain**, bihar 8 urte beteko dituzulako. Etxekoan partez, muxu handi bat.



Zorionak, **Mainer**, 8 urte bete dituzulako. Asko maite zaitugu. Muxu bat aitaxo, amatxo eta Asierreren partez.



Zorionak, **bihozita**, familiako guztien partez, gaur 8 urte egin dituzulako. Patxo bat. Amatxo.



Aupa, **Sara**, familiako eta lagunen partez. Muxu handi bat.



Zorionak, **Unax**, gaur 9 urte egin dituzulako. Etxekoan, eta bereziki, Oier eta Izeiaren partez.



Zorionak, **Enara**! Astelehenean 8 urte! Oso ondo pasatuko dugu! Muxu handi bat denon partez.



Zorionak, **Urko**! Atzo 9 urte, mutil handi! Muxu bat familiakoan eta bereziki, Kaieten partez.




Zorionak, **Ane**!! Gure etxeko printzesak 5 urte! Muxu handi bat, etxekoan partez.




Zorionak, **Nerea**, maiatzaren 1ean 7 urte beteko dituzulako. Muxu bat familiako denon partez.



Zorionak, **bikote**! Bihar ondo-ondo pasatzea espero dugu, guk hala egingo dugu-eta! Muxu asko familiako guztien partez.



Zorionak, **bikote**! Ondo pasa zuen ezkontza egunean. Koadrilakoak.



Zorionak, **bikote**! 6 eta 3 urte dagoeneko! Jarraitu beti bezain alai. Maite zaituztegu.

HERRI URRATS 2017 SENPEREN

Maiatzak 14, igandea

Autobusa antolatuta dugu Iparraldeko ikastolei lagundu, egun zoragarri bat pasa eta gure euskaltasuna aldarrikatzeke

Irteera: 09:00 (Sigmako autobus-geltokia) Itzulera: 19:30 Prezioa: 13 euro (Elgoibarko Izarrako bazkideek 12 euro)

Autobusean joateko izena Elgoibarko Izarran eman behar da; azken eguna: maiatzak 11.

B. Sarasketa, 1 ac 943 12 82 31

Kafea, opilak, ogia,
pintxoak, ardoak...

Gozatu **EIBARKO**
PREZIORIK ONENEKIN!

KAFETEGIA OKINDEGIA

SUTINDO

LABADEROKUA Egunero 06.00 etatik aurrera

LubaNails

Zure azazkalak eskurik onenetan

www.Facebook.com/LubaNails22

634 41 41 95

ELGOIBAR - DEBA

optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359 www.uzurioptika.com

AUDIFONO DIGITAL BERRIENAK

Ez da soinu kalitatea bakarrik;
bizi-kalitatea ere bada

28 BARIXAKUA

17:00 Kiribilka egitasmoa, Maalako parkean. Elgoibarko Izarrak antolatuta.

18:00 Ludoteka ibiltaria, Maalako parkean. Ludoteka herriari zabaltzeko eta kalea jolaserako eremu naturala izanda haren erabilera berreskuratzeko, jolas handiak aterako dituzte kalera.

20:30 Jonas Kaufmann-en aurrez aurreko errezitaldia, Herriko Antzokian.

29 ZAPATUA

8:00 Azken zapatuko feria.

12:00 'Baserri ibiltaria': baserrietako animaliekin gozatzeko aukera izango dute etxeko txikienek.

12:00 Kale Kantariak.

Egueditiek aurrera, ganadu erakusketak. Aita Agirre plazan.

11:00 Gure Esku Dago. Etxeko balkoietan jartzeko plastikoak banatuko dituzte. Kalegoen plazan.

3 BARIXAKUA

11:00 San Bizente meza, San Rokeko basilizian. Meza eta bendizioaren ostean, salda eta txorizoa banatuko dituzte.

4 EGUENA

18:00 Gurasoentzako formakuntza tailerra: 'Nerabezaroan laguntzen'. Kalamua guraso elkarteak, Elgoibar Ikastolako Guraso Kontseiluak, Arreiturre Institutuko Guraso Batzordeak eta Ongizate Sailak antolatuta. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

5 BARIXAKUA

18:30 Argazki erakusketak. C.D. Elgoibarren mendeurrena. Kultur Etxeko erakusketak gelan, hilaren 28ra arte. Asteleheneetik ostiralera 18:30-20:30 eta zapatuetan, 12:00-14:00.

20:30 Opera: I. Puritani. Aurrez grabatutako formatoa. Herriko Antzokian.

Botika ordutegiak

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

Guardiak

09:00 - 22:00

28 Barixakua GARITAONANDIA

29 Zapatua ETXEBERRIA

30 Domeka ETXEBERRIA

1 Astelehena BARRENETXEA

2 Martitzena YUDEGO

3 Eguaztena ORUESAGASTI*

4 Eguena BARRENETXEA

5 Barixakua IBAÑEZ

20:00 - 22:00

* Guardia Elgoibartik kanpora denean, asteburuetan ezik: BARRENETXEA (Elgoibar) - Errosario, 26
Tel.: 943 741 277

22:00 - 09:00

MANDIOLA (Eibar) - San Agustin, 3

Tel.: 943 820 533

- FERNANDEZ: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)

Tel.: 943 756 142

- IBAÑEZ: Rekalde, 1 (Soraluze)

Tel.: 943 751 638

- ORUESAGASTI: Kalebarren, 9 (Soraluze)

Tel.: 943 751 384

Zinea (Herriko Antzokian)

'El guardián invisible'

29 zapatua: 19:00 / 22:15 VOS

30 domeka: 19:00

1 astelehena: 21:30



'Los pitufos: la aldea escondida'

30 domeka: 16:30



Mendaroko Haurreskola

Garagartza, 5

943 755 219



Haurreskolak

www.haurreskolak.net

Matrikulazio epea zabalik maiatzaren 2tik 11ra



ENJOY SUMMER

INGELESEKO

Udalekuak

Elgoibarren

Ekainaren 26tik uztailaren 28ra.

Goizez, 10:00etatik 13:00etara, astelehenetik ostiralera.

PREZIOA
3 aste: 185 €
4 aste: 245 €
5 aste: 295 €

IZEN EMATEKO EPEA
Apirilaren 24tik
maiatzaren 31ra arte.

ADINA: 2012-2005 urte artean (biak barne) jaiotakoak.

TALDEAK: 8-12 lagun talde bakoitzean.



Antolatzailea:

ILS - ELGOIBAR Gipuzkoa

E-mail: ils@ils.es

T. 943 744 040

www.ils.es

INDUSTRY
LANGUAGE
SERVICES



FABRIKAZIOAREN
ZENTRO AURRERATUA
CENTRO AVANZADO
DE FABRICACIÓN



Iñigo Lamelas



Jose Luis Azpillaga



Aste Santuko oporrak baliatuta, Maroko aldeko Atlas mendi inguruetan ibili zarete dozena bat lagun, mendian bertan lo eginez egun batzuetan. Paisaia txundigarriak ikusi dituzue, gozatu loreen usain sarkor eta atseginak, haize leun bizigarria, kolore askotariko haitz bitxiak, mendi lepo eta tontorretako ikusmirak, haranetako ortu eta belardi freskoak; atsedean hartu duzue al-mendrondoen gerizpe gozoan; freskatu zarete erreka zuloetako ur-putzu gardenetan, liluratu gauetako zeru izartsuei begira; ederretsi dituzue mendiko artzain-familien harrera abegikorra eta umeen aurpegi politak; disfrutatu dituzue telefonorik eta Internet konexiorik gabeko egunak. Aho zapore gozoarekin ibili zarete bidaiari zehar.

Halako batean, ordea, zalantzaren harrak kosk egin dizue: nola begiratzen ote die mendi horiei beroriei bertako artzain eta nekazari jendeak? Hain ederrak irudituko ote zaizkie basamortuko lurrak? Ez ote zaizkie gogorak suertatuko udako bero kiskalgarririk eta neguko hotz latzak? Nola egingo ote diote aurre ur eskasiari, edo sutarako egur faltari? Ondo irudituko al zaie telefonorik ez izatea? Umeek gustura onartuko ote dute eskolara joan ezina? Eta zuei, turista motxiladun bitxioi, nola begiratzen ote dizuete? Ondo irudituko ote zaie beren lurretan barrena ibiltzea eta zuen hondakinak han lagatzea? Zer iritziko ote diote euren ahuntz, ardi eta are etxerako behar duten erreketako ur-putzuetan zuen gorputz izerdituak freskatzeari? Zer pentsatuko dute zuen berbeta eta algarekin mendiko bakea urratzen duzueneari? Dudak ahoko gustua mikaztu dizu eta listuarekin batera irentsi behar izan duzu.

“Eta zuei, turista motxiladun bitxioi, nola begiratzen ote dizuete?”

ZURE EKARPENAK, EGUNEROKOAN ONURA. GOGOAN HARTU.

Aurten, aurrekontuaren ia erdia bideratu da gizarte politikerara. Ekonomia sustatzea eta enplegua sortzea ere lehentasuna dira. Hori, eta gehiago. Eta guztia, zu onuradun izan zaitezten.



Mari Karmen,
donostiarra.
Erretiratua.

- A** 8 milioi € Pasaialdea biziberritzeko.
- B** 5.000 pertsonak laguntza jasotzen dute etxean. Atsedeen programak zaintzailearentzako.
- C** Erreferentziazko Zahartze eta Osasun Zentro Aurreratuaren sorrera Pasaian.
- D** Lurraldebus: erretiratuentzat tarifa bereziak, %100eko hobariekin.
- E** Mendekotasun laguntzak jasotzen dituzte 16.000 pertsonak hilabetero.
- F** Kultur ekitaldi handiei laguntza: Zinemaldia, Jazzaldia...



Elgoibar BHI
www.elgoibarbhi.eus

2017-2018 Batxilergoako aurrematrikulazioa: Maiatzaren 2tik 12ra

BATXILERGOA (BH)



GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

- GIZARTE ZIENTZIAK
- HUMANITATEAK



ZIENTZIAK

- OSASUN ZIENTZIAK
- ZIENTZIAK ETA TEKNIKA



ARTEA

- ARTISTIKO MUSIKALA

ATE IREKIAK:
MAIATZAREN 2AN, 18:00ETAN,
INSTITUTUKO ARETOAN (MEKA ERAIKINA)

943 748 397
013431aa@hezkuntza.net

